

LITERATURA. Duela lau urte beka bera jaso zuen 'Connemara gure bihotzetan' idazteko

«Gino Bartali desmitifikatu bat» agindu du Julen Gabiria idazleak

Igartza beka eman diote galdakoztarrari 'Inork ezagutzen al du Gino?' nobela idatz dezan

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Duela lau urte bezala, aurten ere Julen Gabiria galdakoztar idazleak irabazi du Igartza literatur sorkuntzako beka. Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkarlanean argitaletxeak urtero idazle gazte bati ematen diote. *Connemara gure bihotzetan* nobela izan zen orduko hartan beka jaso zuen egitasmoa, eta orain ere nobela egitasmo batekin irabazi du Gabiriak Igartza beka: *Inork ezagutzen al du Gino?* Orain urtebeteko epea du Gabiriak nobela hori amaitzeko. Liburuak, ezeren okerrik ez dela, 2004aren hasieran ikusiko du argia Elkar argitaletxearen eskutik. Horretaz gain, idazleak, sari moduan, 6.000 euro jasoko ditu.

Hamaika egitasmo aurkeztu dira aurtengo ekitaldian, eta horien artean Gabiriarenari iritzi dio onena Unai Elorriagak, Jasone Osorok eta Xabier Mendiguren Elizegik osatutako epaimahaiak, aurretik bi finalista izendatu ostean: Gabiriaren lana eta *Voltaire* izenekoa.

Pozez hartu du Julen Gabiriak Igartza literatur beka bigarrenez irabazi duelako albiste. «Beka lehenengoz irabazi nuenean baino askoz ere ilusio handiagoz hartu dut berria oraingo honetan», azaldu dio egileak EGUNKARIARI. «Lehenengoa ezustea izan zen. Aurretik ipuin batzuk baino ez nituen idatziak, eta bat-batean nobela bat idaztera pasatzea aldaketa handia izan zen. Oraingo proiektu hau, aldiz, azkeneko hiru urtean izan dut buruan bueltaka, eta derrigorrez egin beharreko nobela da niretzat. Oso ilusionatuta nago lan honekin».

Nobela amaitzeko «akuilua» izango da beka, Gabiriaren ustez. «Argitaratuko didatela, baina trankil ibiltzeko esango balidate, benetan trankil ibiliko nintzateke, eta beharbada urte gehiago emango nituen nobela bukatu arte. Urtebeteko epea izateak lanera bultzatuko nau».

Inork ezagutzen al du Gino? nobelan Gernikako bonbardaketa, II. Mundu Gerrako pasarte batzuk eta beste hainbat une historiko ezagun ageriko dira, «baina horiek agertokia baino ez dira», Gabiriak dioenez. «Ez da inondik ere nobela historikoa». Gino Bartali ziklista da



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Xabier Etxebarria, Julen Gabiria, Unai Elorriaga eta Fernando Morillo, atzoko sari banaketan.

pertsonaia nagusia. Jakina denez, 1938an Frantziako Tourra irabazi zuen Bartalilik, eta 1948an berriro nagusitu zen txirrindulari lasterketa gorenean. Tarte horretan, gerraren ondorioz, sei urtez zuen Tourra jokatu, eta horrek Bartali Tourrean gehiagotan nagusitzeko aukera gabe utzi zuen.

Bartalilik hamar urteko tarte horretan bizi izandakoa irudikatzea «oso erakargarria» iruditu zaio Gabiriari, eta hori da nobelan egiten ari dena. Nobela Bartaliren herrian dago kokatua, Ponte Aeman (Italiako Toscana eskualdean). «Gino Bartali desmitifikatu bat» ageriko da nobelan. «Jakin barik Bartalilik urte horietan benetan zer egin zuen, asmatu egingo dut neuk. Bartaliren bizitzan badira horretarako bidea ematen duten anekdota bitxiak, horietako asko berak ukatuak izan arren: Mussolini-ren laguna izan zela, juduen alde ibili zela... Hutsune handiak daude, batez ere 1944ari buruz; urte horretan ez zuen lasterketarik irabazi... Zurrumbilo hori baliatuz, neure istorioa sortuko dut nik». Liburuak ez baita inondik ere Bartaliren biografia izango, haren bizitzan oinarrituz egileak sortutako fikziozko nobela baino.

Baina, Bartalilik gain, beste

AURREKO GARAILAK

- **1998:** Julen Gabiria (*Connemara gure bihotzetan*)
- **1999:** Xabier Etxebarria (*Egun denak ez dira berdin*) Akzesita: Jasone Osoro (*Korapiloak*)
- **2000:** Fernando Morillo (*Ortzadarra sutan*)
- **2001:** Unai Elorriaga (*Hilerririk eta hiztegiak*)

JULEN GABIRIA

Idazlea

«Bartalilik 1938an eta 1948an irabazi zuen Tourra. Bi urte horien artean egin zuena jakin barik, asmatu egin dut»

pertsonaia asko ere ezagutuko ditu Gabiriaren nobelaren irakurleak, «historiara pasatu ez arren, Bartaliren bizitzan garrantzitsuak izandakoak». Istoriario laburrez osatutako «kosmosak» garrantzi handia izango du nobelan, egileak iragarri duenez.

Connemara gure bihotzetan nobelaren aldean, oso bestelakoa izango da, horrenbestez, Gabiriak aurreratu duenez,

Inork ezagutzen al du Gino? «Uste dut heldutasunerako pauso bat edo izango dela. *Connemara gure bihotzetan* handinahiagoa izan zen. Istoriario handi bat sortu nahi izan nuen pertsonaia gutxiren bidez. Oraingo hau, aldiz, istorio xumeagoa izango da, baina interes handikoa, nire ustez».

EGUNKARIARI 'Nire butakatxotik'-en «inbidiaz»

Beste euskal idazle asko bezala, Julen Gabiria ere ziklismozale sutsua da. EGUNKARIARIK Frantziako Tourraren eta Euskal Herriko Itzuliaren albisteekin batera argitaratu ohi duen *Nire butakatxotik* saila «inbidiaz» irakurri ohi du, ziklismoari buruz idazteko gogoz, eta horixe izan da, hain zuzen, proiektu berri hori sortzera bultzatu duten arrazoietako bat. Gino Bartali txirrindularia eta bere garaia ere betidanik izan ditu oso begiko Gabiriak.

Idazle gisa *Connemara gure bihotzetan* nobelarekin eman zuen bere burua ezagutzera. 2000ko udaberrian heldu zen liburua irakurleen eskuetara. Harrera ona izan du, eta egilea oso pozik dago liburuaren irakurleekin izandako harremanekin. Jose Mari Iparragirrenen biografia baten egilea ere bada Gabiria (Elkarlanean, 2001).

euskararen
donostia
patronatu



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

ikastaroak

- **Donostia Kulturaren ikastaroak**
Arte plastikoak eta eszenikoak, eskulanak, irudia eta komunikazioa, literatura...
Izena emateko epea: irailaren 9tik 27ra, 17.00etatik 19.00etara Donostiako Kultur Etxe guztietan

euskara ikasteko dirulaguntzak

- **Donostiarrentzat euskara ikasteko dirulaguntzak**
Eskabideak aurkezteko epea: irailaren 23tik urriaren 14ra, 9.00etatik 13.00etara Euskararen Udal Patronatuan

jolasak eta irteerak

- **Haurrak Beti Jolasean**
Euskara hobetzeko programa: larunbat goizetan jolasak eta irteerak
Izena ematea: irailaren 23an eta 24an, 17.00etatik 19.00etara Euskararen Udal Patronatuan

donostiako 50. zinemaldia

- **Chihiroren bidaia**
Hayao Miyazaki (Japonia)
Irailaren 27an, 19.00etan Belodromoan
- **Spy Kids**
(Ikastetxeetako taldeentzako emanaldiak)
Robert Rodriguez (AEB)
Irailaren 20, 23, 24, 25, 26 eta 27an, 10.00etan Belodromoan

ZABALTEGI

- **Bloody Sunday**
Jatorrizko bertsoan eta euskarazko azpituak Paul Greengrass (UK-Irlanda)
Irailaren 28an, 19.30etan Antzoki Zaharrean
- **Mies Vailla Menneisyttä**
Jatorrizko bertsoan eta euskarazko azpituak Aki Kaurismäki (Finlandia)
Irailaren 28an, 22.30etan Antzoki Zaharrean